

DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN VIII. ZINEMALDIK ELÍAS QUEREJETAK ZUZENDURIKO “CERCA DE TUS OJOS” DOKUMENTALA AURKEZTUKO DU

Abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean, proiektatuko da,
Antzoki Zaharrean, 20:00etan

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren antolakuntza-taldeak –Giza Eskubideak Sailak eta Donostia Kulturak– Euskadin Elías Querejeta zuzenduriko **Cerca de tus ojos** dokumentalaren estreinaldia aurkeztu dute. Zinemaldiaren zortzigarren edizioko proiektio berezia ostegunean, hilak 10, 20:00etan, izango da Donostiako Antzoki Zaharrean, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna dela eta.

Filmaren aurkezpenera Elías Querejeta zuzendaria bera joango da, hain zuzen ere, Giza Eskubideen Zinemaldiko Saria jaso ostean, Donostian sortu zen proiektuaren berri ematera. Gainera, hiriko Urrezko Danbor izandako Hernaniko produktorearen lehen film luzea dugu zuzendari gisa.

Dokumentalak, 1948an unibertsalki aitortu zirenetik gaur egun arte, giza eskubideen etengabeko urraketa adierazten duten irudiak aurkeztuko dizkigu. Filmean Maribel Verdú aktoreak parte hartu du, munduko hainbat lekutan, eskubide horien urraketaen narrazioa egingo digun kazetari gisa.

Cerca de tus ojos Donostiako Udalaren eta Kutxaren Gizartekintza bezalako erakundeen laguntzarekin egin da. Sarrerak 3,70 euro balio du eta Antzoki Zaharreko leihatilan edo Kutxaren ohiko zerbitzuen bidez (Kutxanet, Telekutxa eta Servikutxa) erosi ahal izango da.

Elías Querejeta, zalantza izpirik gabe, zinema espainiarraren historiako pertsonaia garrantzitsuenetako bat dugu. 1963tik hona, berrogeita hamar film luze baino gehiago ekoiztu ditu, Carlos Saura –**La caza** (1965), **Cría cuervos** (1975)–, Víctor Erice –**El espíritu de la colmena** (1973), **El sur** (1983)–, Montxo Armendáriz –**Tasio** (1984), **Historias del Kronen** (1995)–, Manuel Gutiérrez Aragón –**Habla, mudita** (1973)–, Emilio Martínez-Lázaro –**Las palabras de Max** (1978)–, Ricardo Franco –**Pascual Duarte** (1975)–, Gracia Querejeta –**Siete mesas de billar francés** (2007)– edo Fernando León de Aranoa –**Los lunes al sol** (2002)– bezalako zuzendariekin lan eginez, askoren artean, beti ere, proiektu arriskutsuen, pertsonalen, une historiko bakoitzeko gizarte-errealitatearekin lotura zuzena duten proiektuen alde eginez.

Bere ibilbidean sari ugari jaso ditu, besteak beste, Zinema Sari Nagusia (1986), Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiaren Urrezko Domina (1998) edo Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren Arte Ederretako Merituari Urrezko Domina (2001). Mundu osoan jaso ditu omenaldiak: Brusela, Caracas, Chicago, London, Paris, Varsovia, Donostia (Urrezko Danborra 1998), bai eta Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian ere (2008).

CERCA DE TUS OJOS (2009)

Zuzendaria: Elías Querejeta

Ekoizpena: Gusa Alonso-Pimentel / Elías Querejeta P. C.

Gidoia: Elías Querejeta

Argazkia: Jordi Abusada

Musika: Zacarías M. de la Riva

Muntaketa: Ángel Hernández Zoido

Aktoreak: Maribel Verdú, Carlos Kaniowsky, José Antonio Ceinos, Belén Laguna

Iraupena: 72 min.

SINOPSISIA

Ana kazetaria da eta horregatik, munduko leku oso ezberdinetan barrena ibili da. Nerabesarotik, bere aitaren eraginez, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsaletik eta bere edukitik abiatuz gizakiaren garapenaren banakako eta taldeko jokabidea behatzen ditu. Gainera, komunikazioan aplikatutako teknologia berriak erabiltzen ere iaioa da.

Egoera horrek, giza harremanak hobetzeko irrikarekin bat, Giza Eskubideen urraketa latzen inguruko dokumentua osatzera eraman du. Hala ere, dokumentuak mundu justuagoa eta Parisen, Palais de Chaillot-en, 1948ko abenduaren 10ean, duela 60 urte baino gehiago, adierazi zen Deklarazioarekin bat datorrena lortzeko borondate gero eta irmoagoa eta zabalagoa nola hedatzen ari den ere erakusten du.

ZUZENDARIAREN OHARRAK (ELIAS QUEREJETA)

Ez dakit norbait munduan zehar banatuta dauden pantaila ezberdinetan albistegiak ikusten dituzten pertsonen kopurua kalkulatzeko gai den. Dakidana da ni ikusle horietakoa naizela. Badakit ere egunero leku oso ezberdinetan pertsona oso ezberdinei gertatzen zaienaren inguruan jakiten dudala.

Eta behin, Donostian, Giza Eskubideen Zinemaldia zela eta, agian egunez egun ikusteko aukera nuena eta, noski, Giza Eskubideen Deklarazioarekin zerikusia duena biltzeak eta moldatzeak zentzua zuela pentsatu nuen.

Eta kazetaria, zuzenean edo bere lan-tresnaren, ordenagailuko pantailaren bidez, Deklarazioaren urraketak bizi dituen izaki, kazetaria bera Deklarazioaren artikuluen arteko haria izan zitekeela pentsatu nuen.

Lan luzearen emaitza, oso gertukoa izan den elkarlanaren fruitua, hor duzue. Egunero bizi dugun errealitaterantz begirada asko eta anitzak hurbil daitezen espero dut.

MUNTATZAILEAREN OHARRAK (ÁNGEL HERNANDEZ ZOIDO)

Cerca de tus ojos filmeko irudiek min egiten dute. Arrazoia ez da filmak egitera gonbidatzen gaituen hausnarketaren ondorioz sentitzen dugun sumindura, irudien gordintasunak jo eta min fisikoa eragiten digutela baizik. Filma muntatzen ari nintzela horrela sentitu dut behintzat. Askotan, eszena latz horiek etengabe ikusteak amesgaiztoak eragin dizkit eta gauaren erdian izututa esnatzen nintzen. Bestalde, irudi horiek egunero mundu osoko albistegietan agertzen direnak dira eta horrek bidegabekeriaren aurrean immunizatzea lortzen du. Albistearen hoztasuna gainditzeak, gertaera horiek jazotzen diren inguruaren justifikazioak eta egilea dena delakoa izanda ere injustizia salatzeak, horrek guztiak filma oihu etsi bihurtzen dute, “Nahikoa da!” oihu sumina.

Opera prima hain berezi honetan lan egiteak sentimendu bikoitza eragin dit, alde batetik, edukiak sortu didan sufrimendua eta, bestetik, Eliasekin batera lan egitean sortze-askatasunak eman didan poztasuna. Nahiz eta biografiari dagokion zentzu hertsian, belaunaldi oso ezberdinekoak izan (ni, beste asko bezala, bere lana miresten hazi ginenean artean nago eta gaur egun zinemagintzan lan egitearen errudun da hein handi batean), harreman intelektual eta sortzailea bete-betekoa izan da. Material anitzen eta muntatze-gelan proposatu ziren proposamen bisualak bateratzea elkarlan oso estu eta ongi sinkronizatutakoaren ondorio izan dira.

MARIBEL VERDÚ

Maribelek **Siete mesas de billar francés** filmean egindako lanagatik Goya Saria lortu ondoren, Graciak Maribelek interesgarria irudituko litzaiokeen narrazio bati ahotsa jartzea gustatuko litzaiokeela adierazi zuen... Beno, interesgarria baino gehiago hunkigarria...

Cerca de mis ojos filmak izenburua izan baino lehen eta muntatze-prozesuan zela, nire alabaren hitzak gogoratu nituen behin. Muntaiak aurrera zirauen eta momentua iritsi zen. Gusa Alonso-Pimentel-ekin, ekoizpenaz arduratzen denarekin, eta Ángel Hernández-Zoido muntatzailearekin, kontsultatu nuen eta Maribeli deitu nion. Bertsio oso behin-behinekoaren emanaldi bat prestatu zen, muntatze-gelan. Amaitutakoan, Maribelek ia ez zuen isiltasuna mugitu. Hortik gutxira, etxera lagundu nion. Taxian zera esan zidan: *“Film horri ahotsa jartzea asko gustatuko litzaidake... hunkitu nau”*.

Horra hor. Eta ez ahotsa soilik. Baita bere irudia ere. Lan hori egiteko eskaini zenean, irudikatzen zuen pertsonaiaren eta, nolabait, narrazioaren aldaketa eragin zituen. Maribelen parte-hartzeari izenondo bat jartzea oso zaila da. Agian hori dena laburtzen duen bi termino daude: ekimen eskuzabala.

EL VIII FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN PRESENTA EL DOCUMENTAL “CERCA DE TUS OJOS”, DIRIGIDO POR ELÍAS QUEREJETA

Se proyectará el 10 de diciembre, Día Internacional de los Derechos Humanos, en el Teatro Principal, a las 20:00 horas

La organización del Festival de Cine y Derechos Humanos de Donostia-San Sebastián –el Área de Derechos Humanos y Donostia Kultura– presenta el estreno en el País Vasco del documental **Cerca de tus ojos**, dirigido por Elías Querejeta. Esta proyección especial de la octava edición del Festival tendrá lugar el jueves 10, a las 20:00 horas, en el Teatro Principal de San Sebastián, con motivo de la celebración del Día Internacional de los Derechos Humanos.

A la presentación de la película acudirá el propio cineasta Elías Querejeta, para explicar este proyecto que se gestó precisamente en San Sebastián, tras recibir el Premio del Festival de Cine y Derechos Humanos. Además, constituye el primer largometraje como director del productor hernaniarra, Tambor de Oro de la ciudad.

Este documental presenta imágenes que muestran la constante vulneración de los derechos humanos, desde su Declaración Universal en 1948 hasta nuestros días. Cuenta con la participación de la actriz Maribel Verdú, en el personaje de una periodista que va narrando el incumplimiento de esos derechos en distintos lugares del mundo.

Cerca de tus ojos ha sido realizada con el respaldo del Ayuntamiento de San Sebastián y de otras instituciones y entidades como la Obra Social de Kutxa. La entrada cuesta de 3,70 euros y se podrá adquirir en la taquilla del Teatro Principal y a través de los servicios habituales de Kutxa (Kutxanet, Telekutxa y Servikutxa).

Elías Querejeta es, sin ningún género de dudas, una de las personalidades más importantes de la historia del cine español. Desde 1963 hasta hoy día ha producido más de cincuenta largometrajes, trabajando con directores (a la mayor parte de los cuales les dio su primera oportunidad) como Carlos Saura –**La caza** (1965), **Cría cuervos** (1975)–, Víctor Erice –**El espíritu de la colmena** (1973), **El sur** (1983)–, Montxo Armendáriz –**Tasio** (1984), **Historias del Kronen** (1995)–, Manuel Gutiérrez Aragón –**Habla, mudita** (1973)–, Emilio Martínez-Lázaro –**Las palabras de Max** (1978)–, Ricardo Franco –**Pascual Duarte** (1975)–, Gracia Querejeta –**Siete mesas de billar francés** (2007)– o Fernando León de Aranoa –**Los lunes al sol** (2002)–, entre muchos otros, siempre apostando por proyectos arriesgados, personales, fuertemente conectados con la realidad social de cada momento histórico.

Ha recibido infinidad de premios a su carrera, como el Premio Nacional de Cinematografía (1986), la Medalla de Oro de la Academia de las Artes y Ciencias Cinematográficas (1998) o la Medalla de Oro al Mérito en las Bellas Artes del Ministerio de Educación y Cultura (2001), y ha sido homenajeado en todo el mundo: Bruselas, Caracas, Chicago, Londres, París, Varsovia, San Sebastián (Tambor de Oro 1998), además de en el Festival de Cine y Derechos Humanos de San Sebastián (2008).

CERCA DE TUS OJOS (2009)

Director: Elías Querejeta

Producción: Gusa Alonso-Pimentel / Elías Querejeta P. C.

Guión: Elías Querejeta

Fotografía: Jordi Abusada

Música: Zacarías M. de la Riva

Montaje: Ángel Hernández Zoido

Intérpretes: Maribel Verdú, Carlos Kaniowsky, José Antonio Ceinos, Belén Laguna

Duración: 72 min.

SINOPSIS

Ana es una periodista que, por su trabajo, ha recorrido muy diversos lugares del mundo. Desde su adolescencia, por influencia de su padre, la Declaración Universal de los Derechos Humanos y su contenido han supuesto un lugar desde el que observa el comportamiento individual y colectivo del desarrollo humano. Además, es una experta en la utilización de las nuevas tecnologías aplicadas a la comunicación.

Esa circunstancia, unida a su afán por mejorar las relaciones humanas, le lleva a configurar un documento para dar noticia de los terribles incumplimientos de los Derechos Humanos. Pero que también muestra de qué modo se extiende la voluntad cada vez más decidida y amplia de alcanzar un mundo más justo y acorde con la Declaración que se formuló el 10 de diciembre de 1948 en París, en el Palais de Chaillot. Hace más de 60 años.

NOTAS DEL DIRECTOR (ELÍAS QUEREJETA)

No sé si hay alguien capaz de calcular el número de personas que ven los informativos en las distintas pantallas de televisión distribuidas por el mundo. Lo que sí sé es que yo soy uno de ellos. Y también sé que cada día recibo noticia de lo que les sucede en muy diversos lugares a muy diferentes personas.

Y un día, fue en San Sebastián, con motivo del Festival de Cine y Derechos Humanos pensé que tal vez tenía sentido recoger y dar forma a lo que día a día tenía ocasión de ver y que, sin duda, estaba ligado a la Declaración de los Derechos Humanos.

Y pensé que una periodista sería el hilo conductor de los artículos de la Declaración cuyo incumplimiento tuvo ocasión de vivir de forma directa o de comprobar a través de su instrumento de trabajo: la pantalla del ordenador.

El resultado de un largo trabajo, en el que he contado con una cercanísima colaboración, está ahí. Espero que muchas y muy diferentes miradas se acerquen a una realidad que vivimos diariamente.

NOTAS DEL MONTADOR (ÁNGEL HERNANDEZ ZOIDO)

Las imágenes de **Cerca de tus ojos** nos hieren. No es sólo que provoquen nuestra indignación como fruto de la reflexión a la que invita la película. Es que nos golpean con su crudeza y nos provocan un daño físico. Así por lo menos lo he sentido yo mientras montaba esta película. Muchas veces en la noche desperté sobresaltado por las pesadillas que me provocaron el continuo visionado de esas escenas terribles. Imágenes que, por otro lado, ilustran a diario los informativos de todo el mundo y que consiguen que la humanidad se inmunice ante tanto atropello. Trascender la frialdad de la noticia, la justificación del entorno donde estos hechos se producen y denunciar la injusticia independientemente de quién la cometa hacen que esta película sea como un grito desesperado, un ¡Basta ya! indignado.

Trabajar en esta ópera prima tan particular ha supuesto para mí un doble sentimiento de sufrimiento por el contenido y de enorme satisfacción por la libertad creativa con la que he trabajado junto a Elías. A pesar de que, en un sentido estrictamente biográfico, distamos mucho de pertenecer a la misma generación (yo, como muchos otros, crecimos admirando su obra y en buena parte es el culpable de que hoy me dedique al cine), la conexión intelectual y creativa ha sido total. La manera de afrontar el compaginado ante tanta diversidad de materiales y las propuestas visuales que se plantearon en la sala de montaje fueron fruto de una colaboración muy estrecha y bien sincronizada.

MARIBEL VERDÚ

Después de que Maribel recibiera el Goya por su trabajo en **Siete mesas de billar francés**, Gracia comentó que a Maribel le encantaría poner voz a una narración que le resultase interesante... Bueno, más que interesante conmovedora...

Cuando **Cerca de mis ojos** aún no tenía título y estaba en proceso de montaje un día volvieron a mi recuerdo las palabras de mi hija. El montaje avanzó y llegó el momento. Tras consultar con Gusa Alonso-Pimentel, encargada de la producción, y Ángel Hernández-Zoido, montador, llamé a Maribel. Se preparó una proyección, en la sala de montaje, de una versión muy provisional. Al terminar, Maribel apenas movió el silencio. Poco después, le acompañé a su casa. En el taxi me dijo: *"Me encantaría poner voz a esa película... me ha emocionado"*.

Y ahí está. No sólo la voz. También su figura. Su ofrecimiento supuso un cambio del personaje que representaba y también, de algún modo, de la narración. Es muy difícil adjetivar la colaboración de Maribel. Quizá hay dos términos que resumen todo: generosa entrega.